



ZIGOR ARLOKO JURISDIKZIOARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Zigor arloko Jurisdikzioari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean, lan-poltsetan daudenentzat bereziki zuzenduta.

Baldintzak:

1. Ikastaroan **lehentasuna izango dute** Justiziako Administrazioako Kudeaketa, Izapideketa Judizialeko kidegoetako lan-poltsetan daudenek; zehazki, justizia administrazioan, azken bi urteetan 6 hilabeteko lan esperientziarik ez dutenek; eta aurreko lau urteetan ez dute ikastaroa osatu.
 2. Automatrikula, hurrengo estekaren bitartez egingo da:
 - [Zigor arloko Jurisdikzioa online izen ematea](#)
- Modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.***
3. **AUTOMATRIKULA:** Epea argitalpenaren egunean bertan irekiko da (**otsailaren 10ean**) eta **otsailaren 23an itxiko da goizeko 09:00etan.**
 4. Martxoaren 6an, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastaroan onartutako pertsoneri, ikastaroan sartzeko jarraibideak emanez. **GARRANTZITSUA: Posta elektronikoko erretilu guztietan begiratzea gomendatzen da, Spam-ena barne**
 5. 300 plaza eskaintzen dira. Hautatzeko, bitartekoen lan-poltsetako hurrenkerak izango du lehentasuna.
 6. **IKASTAROA:** **Martxoaren 6an hasiko da, 14:00etan, eta martxoaren 20an amaituko da, goizeko 09:00etan.** Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora.
 7. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
 8. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu.**
 9. **AZTERKETA (ONLINE): Martxoaren 23an, 14:00etan,** irekiko da azterketa online egiteko epea, **eta apirilaren 1ean itxiko da, goizeko 09:00etan.**
 10. Gainditu dutenek diploma jasoko dute **"Nire karpeta" -Euskadiko Sare Elektronikoa- atalean.** Gainera, lan-poltsetako kideari deitu ahal izango zaio ordezkapenak egiteko.